

Karmele Jaioren literatura, emozio gorpuztua

Mari Jose Olaziregi Alustiza eta Amaia Elizalde Estenaga
(Editoreak)

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

CIP. Unibertsitateko Biblioteka

Karmele Jaioren literatura, emozio gorpuztua /Marijose Olaziregi Alustiza eta Amaia Elizalde Estenaga (editoreak). – [Leioa] : Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea, Argitalpen Zerbitzua = Servicio Editorial, D.L. 2022. – 233 p. : il. ; 24 cm. – (Mikel Laboa Katedra Bilduma ; 6)

Incluye referencias bibliográficas.

ISBN: 978-84-1319-.

1. Jaio, Karmele, 1970- 2. Literatura vasca – Siglo XXI. I. Olaziregi, Mari Jose, coed. II. Elizalde Estenaga, Amaia, coed.

891.69Jaio 1.06



Liburu hau Euskal Herriko Unibertsitateko Memoria Historikoa Literatura Iberiarretan (MHLI) ikertaldea burutzen ari den ikerketa proiektuon baitan garatu da: IT 1579-22 (Eusko Jaurlaritzan), FFI2017-84342-P (Ministerio de Ciencia e Innovación) eta US 21/14 (UPV/EHU).

- © Testuena: Larraitz Ariznabarreta, Amaia Elizalde Estenaga, Iker González-Allende, Miren Ibarluzea Santisteban, Karmele Jaio, Mari Jose Olaziregi Alustiza, Pilar Rodriguez, Meri Torras Francès, Ane Villagran Arrastoa.
- © Itzulpenena: Rosetta Testu Zerbitzuak SL. Iker González-Allende, Mari Jose Olaziregi Alustiza, Pilar Rodriguez eta Meri Torras Francès-en testuak gaztelaniatik euskerara itzuli dira.
- © Azaleko irudiarena: Jon Hernáez.
- © *Amaren eskuak* filmaren irudiena: Baleuko S.L.

ISBN: 978-84-1319-

Laboari buruz, ikus
www.mikellaboa.com

Aurkibidea

Hitzaurrea	
Mari Jose Olaziregi Alustiza eta Amaia Elizalde Estenaga	9
Literatura idatzi, literatura bizi. Autopoetika	
KarmeLe Jaio	15
1. Eguneroko gorpuztasunaren generoak eta formak KarmeLe Jaio- ren <i>Aitarene etxean</i> (Meri Torras Francès, UAB).	33
2. Iragan gatazkatsua- ren irudi espektralak Jaio- ren eleberrietan (Mari Jose Olaziregi Alustiza, UPV/EHU)	49
3. (Euskal) identitate eguneratu- en mimesia: epika eta etika KarmeLe Jaio- ren <i>Aitarene Etxean</i> (Larraitz Ariznabarreta, CBS-UNR)	65
4. Printzesa txikiak mundu miragarri- an edo esnatzeko ipuinak: <i>Amaren eskuak</i> paperetik pantailara (Amaia Elizalde Estenaga, UPV/EHU).	83
5. <i>Amaren eskuak</i> eta <i>Musika airean</i> . Afektuen teoriatik egindako irakur- keta bat (María Pilar Rodríguez, Deustuko Unibertsitatea).	131
6. Gizonak agerian: Maskulinitatea, patrilinealtasuna eta feminismoa KarmeLe Jaio- ren ipuinetan (Iker González-Allende, U. of Nebraska, Lincoln)	153
7. KarmeLe Jaio itzultzen edo itzulpenaren eskuak idazlearen etxean (Miren Ibarluzea Santisteban, UPV/EHU)	175
8. Gorputz urrekoaren uhina: KarmeLe Jaio- ren olerkigintzara hurbilpen bat (Ane Villagran Arrastoa, UPV/EHU)	205
Bio-bibliografiak	229

Hitzaurrea

Emozioa, beti.

Liburuaren aurkezpen laburra¹

Mari Jose Olaziregi Alustiza & Amaia Elizalde Estenaga
(UPV/EHU-MHLI ikertaldea)

Bizitzari egindako gorazarre gisara kontsideratu zuen kritika ingelesak Kar-mele Jaioren (Vitoria-Gasteiz, 1970) *Amaren eskuak* (2010) eleberriaren itzulpena. Gorazarrea eta festa esango genuke, bizitzaz gainezka dagoen fikzio hunkigarria. Horregatik harrapatzen du haren obrak irakurlea, erraiekin idatzitako lanak eskaintzen dizkiolako, bizitza bera bezain gordinak, ametsak bezain gozoak. Oinarrian, nola ez, keinuz beteriko egunerokotasun us-tez ezdeus horrek bor-bor eragiten dizkiguten emozioak, gure gorputzaren kartografia errotik eraldatzen dutenak.

Emozioa da Jaioren sorkuntza lanaren motorra. Halaxe aitortzen du liburu honen hastapenetan jarri dugun autopoetika eskuzabalean. Eskuzabala, egileak sorkuntza-lanaren zirrikitu ilun eta neketsuak mahai gainean jartzen dizkigulako. Iradokitzailea, haren hausnarketan oinarrian hamaika irakurketa eta idaz-leren esanekin solastatzen delako. Liburutegia eta lorategia. Ez omen da besterik behar zoriontsu izateko. Biak ala biak loratzen dira Jaioren literatur lanetan.

¹ Artikulu hau Euskal Herriko Unibertsitateko Memoria Historikoa Literatura Iberiarretan (MHLI) ikertaldea burutzen ari den ikerketa proiektuon baitan garatu da: IT 1579-22 (Eusko Jaurlaritza), FFI2017-84342-P (Ministerio de Ciencia e Innovación) eta US 21/14 (UPV/EHU).

Hiru ipuin liburu –*Hamabost zauri* (2004), *Zu bezain ahul* (2007) eta *Ez naiz ni* (2012)–, hiru nobela –*Amaren eskuak* (2006) *Musika airean* (2009) eta *Aitaren etxea* (2019)–, eta poesia liburu bat –*Orain hilak ditugu* (2015) ditu argitaratuak Karmele Jaiok. Eta beste hainbeste sari lortuak ere bai. Hala, *Amaren eskuak* nobelaren ingelesezko itzulpenak, *Her mother's hands* (Parthian Books), English PEN Translation Award saria jaso zuen edo *Aitaren etxea* nobelak, 2019ko Euskadi Literatura Saria eta 111 Akademiaren sariak. Haren obrak izan dituen itzulpen ugariak ere saritzat har genitzake, irakurleen saritzat. Halaber, Best European Fiction 2017, *The Penguin book of Spanish short stories* (Penguin Classics), eta beste hainbat antologiatan argitaratu diren haren lanei dagokienez. Orrietatik pantailetara ere eramán zuen Mireia Gabilondok 2013an *Amaren eskuak* nobela. *Ecografías* ipuina, ordea, Ramon Barearen zuzendaritzapean taularatu zen 2010ean. Esanda-koaz bat, euskaltzain urgazle ere bada Jaiok.

Liburu honetan bildu ditugun Jaiori buruzko artikuluak generoka antolatu ditugu. Egilearen autopoeitika bikainaren ostean, hastepenetan kokatu ditugu narratiba-lanei buruzko ikerlanak, eleberrri berrienetik, *Aitaren etxea*, Jaioren ibilbidearen hasieran argitara emandako ipuin-liburuetarainokoak jasotzen dituztenak. Irakurlea laster ohartuko denez, obra batzuek iruzkin bat baino gehiago eragin dituzte, ikuspuntu eta abiapuntu desberdinak eskaintzen dituztenak, gainera. Finean, literatur lan oro irakurketa eta interpretazio agortezinen iturri dela gogorazten digute eta adierazkortasun amaitezin hori, azken batean, Jaioren literatur lanek eragin eta eragingo dituzten irakurketen lagin bat besterik ez dela. *Aitaren etxea* Torras, Olaziregi eta Ariznabarretaren iruzkinen abiapuntu bada, aurreko eleberrria, *Amaren eskuak*, Olaziregi, Elizalde eta Rodríguezena. González-Allende, berriz, Jaioren ipuingintza izan du aztergai, eta Ibarluzeak Jaioren itzulpen-praktikei begiratu die. Egilearen poema liburu bakarraren irakurketak, *Orain hilak ditugu* (2015), Villagranek eskainia, osatzen du liburua. Esango genuke, irakurgai diren liburuen nolakotasunak baino gehiago erabilitako hurbilpen eta metodologiak egiten duela liburu hau deigarri. Izan ere, irakurlea segituan ohartuko da genero-ikasketek bertan duten gailentasun ia erabatekoaz (rolak, maskulinitate/feminitate ereduak, gorputza...), baita Afektuen Teoriak edo Memoria Ikasketek generoaren ikuspuntuari egiten dioten ekarpen funtsezkoaz ere. Esan beharrik ez dago artikuluak edozein hurrenkeratan irakur daitezkeela, guztiak direla elkarren osagarri eta ahots nahiz begirada aniztasun horrek ematen diola aberastasuna liburuari.

Hala, Meri Torras Francèsen lanak (Universitat Autònoma de Barcelona) ematen dio hasiera azterketa-bildumari, «Eguneroko gorputzasunaren generoak eta formak Karmele Jaioren *Aitaren etxean*» izenburupean. Idazlearen azken eleberriaren azterketa sakona egiten du genero-ikasketen ikuspegitik abiatuz eta gorputza ardatz duen arloa jorratuz: kontakizunean ageri den egunerokotasunaren keinuen koreografia. Hain zuzen ere, sexu-genero materializazio binarioaren performatibitatean zeresan handia duten keinu horiek Jaioren narrazioan duten pisua azaleratzen du Torras Francès-ek. Keinu horiei eleberrian ematen zaien garrantzia abiapuntu, egunerokotasunaren koreografia interpretatzen du, aipatutako binarismoa behin eta berriz erreproduzitzeak eleberriko pertsonaien bizitzekin eta rolekin duen zerikusia analizatuz eta keinu horiek pertsonaiengan duten boterea azaleratuz. Hala, aditu honen arabera, Jaioren idazkerak naturalizatutako ei erreparatu, distantziatik begiratu eta horiek deseraikitzeke gonbita da Jaioren eleberria.

Mari Jose Olaziregi Alustizak (Euskal Herriko Unibertsitatea) sinatzen du liburu-hurrengo artikulua. Memoria Ikasketen eremuko hurbilpena eginez *Amarren eskuak* eta *Aitaren etxea* lanetan sakontzen da «Iragan gatatzatsuen irudi espektralak Jaioren eleberrietan» atalean. Bi eleberrietan ageri diren mamu-irudiak edo espektrorak aztertzen ditu —bi kasuetan ETaren borroka armatuarekin lotuak— eta errepresentazio literario horien interpretazioa eskaintzen. Irudi espektralek ezinegona sortzen dute eleberrietako protagonisten eguneroko bizimoduan, etengabe berragertzen dira oroimenean zein errealtatean eta haiekiko harremana deserosoa da. Horrekin lotuta, sinbologia nazionalistaren deseraiketa ere aztertzen du Olaziregi Alustizaren lanak, baita genero ikasketen ikuspegitik feminitatearena eta maskulinitatearena ere.

Larraitz Ariznabarretak (University of Nevada) Jaioren *Aitaren etxea* (2019) eleberrian darabilen estetikaren inplikazio politiko-etikoei buruzko hausnarketa sakona garatu du «(Euskal) identitate eguneratuen mimesia: epika eta etika Karmele Jaioren Aitaren Etxean» lanean. Fokua azken lan horretan kokatzen duen arren, Ariznabarretak idazlearen hautu estetikoak modu zabalago baten interpretatzen du, bai idazlearen obraren baitan, baita euskal emakumezko idazleen eremu zabalagoan ere. Pertsonala politikoa delako lelotik abiatuta lerro-artean irakur daitekeen interpretazioa luzatzen du Ariznabarretak: Euskal Herriko gatatzaren testuinguruko errealtate sozio-politikoan birkokatzeke modu gisa ageri da Jaioren gauza txikien estetika, egungo euskal irakurleriarekin arrakastaz bat egin duena.

Intermedialitatearen eremuan kokatzen da Amaia Elizalde Estenagaren (Euskal Herriko Unibertsitatea) «Printzesa txikiak mundu miragarrian edo esnatzeko ipuina: *Amaren eskuak* paperetik pantailara» azterketa. Jaioren *Amaren eskuak* (2006) eleberria oinarritzat hartuz Mireia Gabilondok 2013an egindako zinemarako moldaketa homonimoa aztergai harturik, literaturatik zinemarako transposizioa nola gauzatu den aztertzen du egileak. Gabilondoren lana euskal zinemagintzaren eremuan kokatu eta aztergai den moldaketa irizpide ezberdinen arabera sailkatu ostean, eleberriaren mamia hizkuntza literariotik ikus-entzunezko lengoaiara nola ekarria izan den azaltzen du, elementu sinbolikoei eta haur literaturarekiko testuartekotasunari erreparatuz, bereziki.

María Pilar Rodríguez (Deustuko unibertsitatea) «*Amaren eskuak* eta *Musika airean*. Afektuen teoriatik egindako irakurketa bat» ekarpenak Jaioren lehen bi eleberrietan sakontzen du afektuen teoriaren eta adinkerriaren ikasketen ikuspuntutik. Bi lan horietan adinean aurrera doan ama gaixotuaren figurak garrantzi zentrala dauka baita, horrekin lotuta, etxe barruko zaintza lanek ere. Hari horretatik tiraka, literatur testuek afektuekin elkarreaginean dauden lan-modu ezberdinekiko egiten duten hurbilpena azaleratzen du azterketa honek, tratamendu literario horren irakurketa kritikoa eginez eta aztergai diren lanek afektuen teoriarekin lotuta egiten duten ekarpen literarioari buruz hausnartuz.

Ipuingintza azterkizun duen artikulu bakarra da Iker González-Allenderena (University of Nebraska-Lincoln), «Gizonak agerian: Maskulinitatea, patrilinealtasuna eta feminismoa Karmele Jaioren ipuinetan» izenburua duen azterketan. *Hamabost zauri* (2004) eta *Zu bezain ahul* (2007) ipuin-liburuetan argitaratutako zenbait narrazio laburretan ageri den generoaren esparruko diskurtsoa azaleratzen du lan honek, diskurtso hori heteropatriarkatuaren kritika zorrotzean oinarritzen delarik. Genero arteko menperakuntza harreman afektiboen eta lan-errealitatearen esparruan identifikatzen ditu kritikariak Jaioren kontakizunean eta, era berean, azpimarratzen du gizonak ere heteropatriarkatuaren biktima gisa errepresentatuta ageri direla, errealtatea aldatzearen onura emakumeentzat ez ezik gizonentzat ere badela dela iradokiz.

Hurrengo artikuluak Jaioren literaturaren itzulpenaren unibertsoa du jomugan Miren Ibarluzea Santistebanen eskutik (Euskal Herriko Unibertsitatea), «Karmele Jaio itzultzen edo itzulpenaren eskuak idazlearen etxean» lanean.

Jaiok euskal idazle-autoitzultzaile gisa dauzkan kezkek azaleratu nahi izan ditu nagusiki, haren lanen itzultzaile gisara izandako hausnarketak, aurkitutako zailtasunak. Idazlearen itzulpen *habitusean* sakonduz, galdetegi baten bidez jasoa da azterketaren muinaren zati bat. Bide horretatik jorratu dira idazlearen hizkuntza-biografia, itzulpen-esperientzia, itzulpenari buruzko usteei eta profesioarekiko atxikimendua. Era berean *Amaren eskuak* eta *Aitaren etxea* eleberrietan itzulpenari buruz ageri den diskurtsoa ere aztertzen da, itzulpenak edo/eta itzultzailearen figurak fikzioaren gai gisa espazio garrantzitsua hartzen baitu bi kasuetan.

Liburuari itxiera emanez, narrazioetik olerkira egin dugu salto, Ane Miren Villagran Arrastoaren (Euskal Herriko Unibertsitatea) «Gorputz urezkoaren uhina: Karmele Jaioren olerkigintzara hurbilpen bat» ekarpenari esker. Villagran Jaioren obra poetikoan murgiltzen da, haren jardun literarioaren alderdirik lirikoarenari helduz. Idazlearen poema liburu bakarra (*Orain hilak ditugu*, 2015) aztergai hartuta, arreta gorputzean ipiniz eta afektuen teoriatik abiatuta hurbildu zaie testuei Villagran Arrastoa. Azterketan zehar urak, betiere *ni*-poetikoaren intimitateari eta gorputzari lotuta, bere forma guztietan daukan balio sinbolikoa eta honi lotutako elementuek poemen iruditerian duten presentzia nabarmena arakutzen dira. Besteak beste, uhinari eta, berez, itsasoari lotuta, urezko gorputzak iraganarekin eta memoriarekin duen lotura azaleratzen da lan honetan, bai eta feminismoarekin lotutako interpretatzen ere, hidrofemismoaren proposamen teoriko-kritikoa ekarriaz.

Literatura idatzi, literatura bizi.

Autopoetika

Karmele Jaio

Liburu bat bukatu berritan egileak ez daki oso ondo zer egin duen. Horregatik hasten gara askotan totelka, hitzak aurkitu ezinik, gure lan berria jendaurrean azaldu nahian gabiltzanean. Sorkuntza prozesuaren nondik norakoak ezin dira jarraibide-orri batean jaso, egilea ere ez baita askotan kapaz prozesu horretako hainbat pauso azaltzeko, ezta ulertzeko ere. Sorkuntzaren misterioaren parte da.

Sorkuntzak badu alde arrazional bat, buruak kontzienteki zuzentzen duena. Han gordetzen du idazleak bere erreminta kutxa, urteekin betetzen joan dena; han dago bere idazle esperientzia eta han dago baita ere, eta batez ere, irakurri duen guztia. Baina, horrekin batera, beste indar irrazionalago batzuek gidatzen dute gure idazketa: emozio ezkutuen inertziek, bulkadek, urtetan oharkabean pilatutako tentsioek, esperientzien oihartzunek, memorian gordetako usain eta doinuek... Gure barneko alde ilun, misteriotsu eta irrazional batek agintzen du askotan zer idatzi; ez dugu idazten beti nahi genuena. Edo, agian zuzenagoa da esatea azkenean benetan nahi duguna idazten dugula, geure buruak agindutakoaren kontra bada ere.

Beraz, sorkuntza ezin da beti esplikatatu, ez bere osotasun eta konplexutasunean behintzat. Horregatik egiten dugu ihes, gezi pozoituetatik nola, liburu berri bat idatzi ondoren egiten dizkiguten zenbait galderetatik. *Zeri buruzkoa da zure liburua? Egingo al didazu zure liburuaren laburpen bat?* Liburu bat idatzi behar izan dut esan nahi nuena esateko, nola laburbilduko dizut orain esaldi batean? Halako zerbait erantzuteko gogoia ematen du. Baina, azkenean, halako galderei erantzun ahal izateko, hitzez eman daite-

keen azalpen bat eraikitzen du idazleak, liburuaren inguruko diskurtso bat. Bere liburuak jorratzen dituen gai bat edo bi aukeratu eta lerroburu modura eskaintzen ditu: *Bai, hau da nire liburuak kontatzen duena. Hor duzue erantzuna*. Baina jakitun da kanpora begirako erantzuna dela, benetako erantzuna ez dagoela esango dituen hitz horietan, idatzi duen obran baizik. Idazleak ezingo du inoiz kontatu liburuak kontatzen duena. Inon erantzunik baldin badago, obran bertan dago eta ez bere azalpenetan.

Beraz, nire idazketari buruzko hitz hauetan ez dut nire sorkuntza lanaren disezio bat egingo, ezta irakurketa burutsurik ere, horretarako daude eta adituak. Ezin dut ahaztu, gainera, Reich-Raniki kritikoak esan zuena: «*Txoriek ornitologiaz dakiten beste dakite idazle gehienek literaturaz*». Beraz, hobe hegan egitean sentitzen dudana hitz egitea hegaldia posible egiten duten fisikaren arauak azaltzeko ahalegina egin ordez, badaezpada.

Hala, sortzeko prozesuaren esperientziaz arituko naiz, bertan aurkitzen ditudan zailtasunak eta kezak azaltzen ahaleginduko naiz eta sortzen zaizkidan galderak plazaratuko ditut zenbait hitz gakok eta idazleen aipuek lagunduta.

Idaztera bultzatzen nauten arrazoiak zein diren da lehen galdera. Zergatik idazten dut?

ARROZTASUNA

Nik errotuta izan dut beti nire barnean munduarekiko arrotasun sentipen bat, eta ez dakit ez ote dagoen idaztearen zergatiaren jatorrian lekuz kanpo sentitze hori, munduari ezin egokitze edo ingurua bera ulertzeko ezintasun hori.

Bizitza da ulertzen ez dugun zerbait. Idaztean, baina, sentitzen dugu bizitzari forma bat ematen ari garela eta idazketak zehaztasun handiagoz pentsatzeko eta munduaren konplexutasuna hobeto ulertzeko aukera ematen digula. Bioy Casares idazlearen hitzetan, «*Zehaztasunez pentsatzeko saiakera da idaztea*». Bizitza gertaera ezberdinetan zatikatuta agertzen zaigu, gora-beheratsu, zoriak gidatuta... Fikzioak laguntzen digu horri guztiari forma ematen, sintaxi bat, eta, hala, pusketetan banatuta agertzen zitzaigun hori batu egiten da, forma bateratu batean agertzen zaigu.

Baina zertarako bizitzari forma emateko ahalegin edo nahi hori? Oinarrian bizitzari zentzu bat ematearen beharra dagoela suposatzen dut. Ez da helburu makala, bizitzan zerbait zaila baldin badago, bizitzari berari zentzu bat ematea izaten baita.

Idazten gaudenean, etengabe ari gara aukeratzen, eta hor aurkitu dezakegu zentzuren bat. Zer aukeratzen dugun, zeri ematen diogun indarra... aukeraketa horretan aurkitu dezakegu gure mundua zein den ezagutzeko pistaren bat.

ISOLAMENDUA

Ni askotan sentitu naiz isolatuta jendetzaren artean. Eta iruditzen zait idazteko askotan beharrezkoa dela bakardade hori sentitzea. Maria Zambranok esaten zuen beretzat idaztea zela bere bakardadea defenditzea. Eta idazlearen bakardadea defenditzen zuen Marguerite Durasek ere: *«Liburuak idazten dituen pertsonaren inguruan beti egon behar du besteengandik banantze bat. Egilearen bakardadea da, idazteak berezkoa duen bakardadea»*.

Durasek dion bezala, egilearen bakardadea beharrezkoa izanda ere, bakardade hori hausteko idazten dugula iruditzen zait, komunikazio falta bat asetzeko. Idazketak babesleku bat ematen dit eta barruan dudana komunikatzeko egokiagoa den tempo bat. Martin Ugaldek esaten zuen, bere ideiak modu argian adierazteko, idaztearen prozesuak ematen zion denbora behar zuela, ideia bat burutik besora, besotik eskura heldu arteko denbora hori. Nik ere denbora hori behar dut, oso txarra izan naiz beti boteprontoan. Bertsolari eskasa nintzateke.

Beraz, esan nahi dudan hori esateko sorkuntza prozesua behar dut, ondo baitakit sorkuntzaren prozesuaren bitartez bakarrik sortuko dela; sorkuntza prozesurik gabe, ez litzatekela inoiz existituko. Idaztea, zentzu horretan, beste modu batez nekez deskubrituko nituzkeen gauzak aurkitzeko modua da. Deskubrimendu bat.

DESKUBRIMENDUA

Idazteko modu asko daude. Posible da burua erantzunez beteta idaztea. Horrela idazten duten idazleek lehen lerroa idatzi baino lehen argi izaten

dute zer esan nahi duten, nola esango duten, idazlanaren gidoia prest izaten dute... Hori guztia dutenean hasten dira idazten; edo, zehatzago izateko, hori guztia izan arte ezin dute idatzi. Baina, bestetik, posible da burua galderaz beteta idaztea. Horrela idazten dutenek sorkuntza prozesuan bertan bilatzen dituzte erantzunak. Bigarren taldekoa naiz ni.

Niretzat idaztea deskubritzea da. Testu batean barneratzen naiz baso ilun batean sartuko banintz bezala, linterna eskuan, zer aurkituko dudan jakin gabe. Idazten noan heinean dakit zer esan nahi dudan.

Rafael Chirbesen aipua da: *«Jeneralean, itsu-itsuan idazten da. Nire liburuetako batean ere ez dut jakin oso argi zertaz idazten ari nintzen idatzi bitartean, ia bukatu arte. Idaztea tunel ilun baten barrena zulo bat egiten joatea da. Gauzak esan ahala ezagutzen dut esan behar dudana».*

Gertrude Steinena beste hau: *«Idazkuntza aurkikuntza da. Honek esan nahi du sorkuntza arkatzaren eta paperaren artean agertzen dela, eta ez lehenago, geure buruan, edo gero, forma berri bat ematen diogunean. (...) Zer lortu nahi dugun jakitea beharrezkoa da, baina behin hori jakinda, misterioari jarraitu behar zaio».*

Liburu bat idazten hastea niretzat ilun dagoen espazio batean sartzea da. Orain arte idatzi ditudan nobeletan, ipuinetan... ez dut inoiz oso argi izan hasieratik zer kontatu nahi nuen. (Aurretik zer esan nahi dudan jakinez gero, zertarako idatzi liburu bat? galdera buruan baneuka bezala). Intuizio moduko bati jarraitu diot beti, esku artean gidoi baten ordeztirudi bat edo jakin-min handi bat izan ditut. Gidoirik gabe hasten naiz idazten. Bila. Ume baten antzera botatzen dut buruan dudan guztia. Badakit hor dagoela idatziko dudanaren esentzia. Ondoren, bigarren fasea dator: umeak brastakoan botatako hori guztia ordenatzera dator pertsona heldua. Hor dator zentzuen, gidoiaren, eskemen eta egituren txanda. Hor dator etengabeko zuzenketa. Idaztea zerbait bada, etengabe zuzentzea baita.

Beste aipu hau Paul Austerrena da: *«Nire liburu guztiak dira zailak idazten. Mantso eta minez idazten dut. Eta ez naiz egitura batetik abiatzen. Liburuak berak aurkitzen nau ni. Irudi bat sortzen da nire buruan eta poliki-poliki inguratu egiten nau, eta ez dut beste erremediorik hura besarkatzea baino».*

IRUDIAK

Irudi bat. Horixe bera izaten dut nik askotan, besterik ez, nobela bat edo ipuin bat idatzi baino lehen.

Amaren eskuak nobela idazten hasi nintzenean, adibidez, hasieran irudi hau baino ez nuen: Amaren eskua izararen gainean, eta alaba esku haiei begira, zainek zeharkatutako esku haiek zerbait esango diotela espero balu bezala. Horra hor nobela idazten hasi nintzenean neukan material bakarra. Noski, nire barnean bazeuden nik oraindik ezagutzen ez nituen esanahi asko, idazketa prozesuak berak askatu zituenak.

Musika airean nobela idazten hasi nintzenean ere irudi bat nuen bakarrik, eta buruan nuen irudi hura deskribatuz hasi zen sorkuntza prozesua: leihotik begira zegoen adineko emakume bat, etxean, bere bakardadean.

Aitaren etxea nire azken nobela idazten hasi nintzenean ere irudi batek inguratu ninduen: gizon bat, sukalde moderno batean gosaltzen, kafetera elektriko bati begira, sukalde berrian tresna hura elementu zaharkitua dela pentsatuz; haren tanta-jario geldoari begira, bera ere sustantzia galtzen ari dela sentituz.

Irudi bat agertzen zait, icebergaren punta balitz bezala, eta sorkuntza prozesuan aurkitzen dut irudi horren esanahia. Gero konturatu nintzen kafetera zahar hark irudikatzen zuela maskulinitate zahar bat mundu berri eta arrotz batean; dekoratu berri batean gizonak sentitzen duen ezinegona, gizon izateko ikasi duen modua aurrean duen kafetera bezala zaharkitua geratu dela sentitzen duenean.

ZERTAZ

Askotan hala uste badugu ere, ez dugu aukeratzen zertaz idatzi. Gaiak inguratzen gaitu eta azkenean ez dugu beste erremediorik hartaz idaztea baino, Austerrek dion bezala.

Antonio Lobo Antunesek honela azaltzen du: «*Ez dut idazten, ozenago entzuten baizik. Eseri eta ahotsak noiz hasiko zain geratzen naiz*».

Idaztea entzutea da. Zer esan nahi dugun entzuteko gaitasuna izatea. Eta pazientzia. Eseri eta itxaron.

Julio Cortazarrek: «*Gai bat aukeratzea ez da hain erraza. Batzuetan ipuingi-leak aukeratu egiten du eta beste batzuetan gaia ezinbestean inposatuko babilizaio bezala sentitzen du, idaztera bultzatuko balu bezala*».

Ez dugu gaia aukeratzen eta, honekin batera, ez dugu nobela bat idazten tesi bat berresteko helburuarekin, nahiz eta emaitzak tesi bat berretsi edo munduaren ikuspegi konkretu bat eskaini. *Aitaren etrea* idazten hasi baino lehen nire helburua ez zen maskulinitateei edo emakume-gizon botere harremanei buruzko liburu bat idaztea. Gaia modu sotilago batean joan zen agertzen. Sotil baina temati, azkenean inguratzen zaituen arte. Idazketa prozesua aurrera zihoala, norantz nindoan ikusi nuenean, neure buruari galdetu nion: *ziur al zaude? Hor sartuko al zara?* Gai zaila iruditu zitzaidan, oso konplexua... baina ez nuen beste erremediorik. Ez dugu gaia aukeratzen; gaia gure barnean dago eta idazketa prozesuak askatzen du.

INKOMUNIKAZIOA

Hori dela eta, idatzi aurretik baino gehiago, idatzi ondoren ezagutzen dugu zeintzuk diren gure gaiak. Nire kasuan, inkomunikazioaren gaia konstante bat da. Gizakien arteko komunikazio ezintasuna nire obra guztietan agertzen da: familietan sortzen diren isiltasun hotzak (*Amaren eskuak* eta *Aitaren etrea*), lagun arteko komunikazio falta (*Musika airean*) edo bikoteen artekoa (nire ipuin askotan agertzen dena).

Nire lehen ipuin liburuari *Hamabost zauri* izenburua jarri nion irudi bat nuelako buruan: bizitzan askotan hainbat hitz esan gabe geratzen zaizkigu eta hitz horiek irenstean beti sortzen dute zauri bat barruan.

Beraz, nire idazteko eremua hein handi batean esan gabeko hitzena da. Lan guztietan ematen diot garrantzi handiagoa pertsonaiek esan gabe uzten dutenari esaten dutenari baino. Izan ere, iruditzen zait barruan uzten duguna beti izaten dela garrantzitsuagoa, egiazkoagoa, kanpora ateratzen uzten duguna baino.

Idaztea bada gure egunerokoaren atrezzoaren azpian dagoena argitara ateratzeko modu bat. Normaltasunak eta ohiturak estaltzen dutena ikusteko modu bat. Guztion bizitza estandar eta arrunten atzean dauden ekaitz, lurrikara, amildegia ikusteko aukera ematen digu literaturak. Besteen etxeko